

Kanalak

Guk erabiliko ditugun kanalak bi izango dira: bezeroareiko komunikazioa (sare-sozialak) eta produktu eta zerbitzuen banaketa/salmenta. Horien bitartez, bezeroak gure enpresa ezagutu ahalako dute eta kontsumitzaile berriak lortuko ditugu.

1. Bezeroarekiko komunikazioa (sare-sozialak):

Gure enpresak sare sozialak erabiliko ditu bezeroekin komunikatzeko eta gure zerbitzuak erakusteko. Instagram, TikTok eta Youtube plataformetan irudiak eta bideoak jarriko ditugu eta horrela jendeak gure produktuek eta zerbitzuek nola funtzionatzen duten ikusiko du. Gainera, sare sozialetan bezeroarekin etengabeko harremana mantenduko dugu, komentarioak eta mezuak erantzuten. Horrela, komunitate bat sortuko dugu eta bezeroek gurekin komunikatzeko aukera izango dute.

- *Instagram*: irudiak eta bideo laburrak jarriko ditugu eta honen bidez geldialdiak egiteko aukera izango dugu bezeroekin.
- *TikTok*: bideo lagungarriak egingo ditugu, jendeak gure produktuak eta enpresa hobeto ezagutzeko.
- *Youtube*: bideo luzeak eta interesgarriak jarriko ditugu bezeroak ondo ulertzeko zer-nolako proiektuak egingo ditugun.

2. Produktu eta zerbitzuen banaketa/salmenta:

Gure webgune bat sortuko dugu eta bertan jendeak gure produktuak erosi ahal izango ditu. Produktuak hornitzaileek prestatuko dute eta gu izango gara salmenta guztiak kudeatzen eta bidaltzen dituenak. Gainera, gure produktuak beste herrialde batzuetan ere saldu ahal izango ditugu. Aldi berean, web gunearen bitartez hitzordua erreserbatu ahal izango da. Horretarako, gure webgunean ondo antolatuko ditugu sistema guztiak eta hornitzaileekin lan egingo dugu bidalketa eta entrega prozesuak ondo kudeatzeko.